

HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

2014, APIRILAREN 2A



IMAJINATU
HERRIAK
HISTORIAN
ZE HAR

Gutuna munduko haurrentzat

Irakurleek sarri galdetzen diete idazleei euren istorioak nola idazten ote dituzten - non sortzen dira ideiak? Nire irudimenean, erantzuten du idazleak. A, noski, erantzun ohi du irakurleak. Baina, non dago zure irudimena, nolakoa da eta egia al da guztiok dugula bat?

Tira, erantzun ohi du idazleak. Nire buruan dago, noski, eta, irudiz eta hitzez osatuta dago, eta oroitzapenez eta beste istorio batzuen arrastoez eta hitzez eta gauzen zatiez eta melodiez eta pentsamenduz eta aurpegiz eta munstroz eta formez eta hitzez eta mugimenduz eta hitzez eta olatuz eta arabeskoz eta paisaiez eta hitzez eta lurrinez eta sentimenduz eta kolorez eta errimez eta karraskatxoz eta txistuz eta zaporez eta energia leherketez eta asmakizunez eta haize leunez eta hitzez. Hori guzti hori hor barruan biraka eta kantuan eta kaleidoskopio baten antzera jokutzen eta flotatzen eta esertzen eta pentsatzen eta burua hazkatzen.

Jakina, guztiok dugu irudimena: hori gabe ez ginateke amesteko gai izango. Hala ere, irudimen guztiak ez daude gauza berberez osatuta. Agian, sukaldarien irudimena, batez ere, zaporez osatuta egongo da, eta artisten irudimenak, batik bat, koloreak eta formak izango ditugu. Idazleen irudimena, nagusiki, hitzez osatuta dago.

Irakurle eta istorio entzuleen irudimena ere hitzez elikatzen da. Idazlearen irudimenak ideiak, soinuak, ahotsak eta pertsonaiak istorio bihurtzeraino landu, eta, buelta eta forma ematen die. Istorio hori hitzez baino ez da osatzen, zirriborroz osatutako batailoien orriz orriko desfilea. Orduan, bat batean, irakurlea iristean zirriborro horiek bizia hartzen dute. Orrian jarraitzen dute, zirriborro

itxura izaten jarraitzen dute baina irakurlearen irudimenean ere jolasean dabilta, eta honek forma eman eta hitzak lotzen ditu istorioak leku bat izan dezan bere buruan, idazlearen buruan izan zuen bezala.

Horregatik da irakurlea idazlea bezain garrantzitsua istorio batentzat. Idazle bakarra dago horietako bakoitzarentzat, baina ehunka edo milaka, edo zenbaitetan milioika, istorio irakurle daude idazlearen hizkuntza berean irakurtzen dutenak, edo, agian, beste hainbat hizkuntzatarara egindako itzulpenak irakurtzen dituztenak. Idazlerik gabe ipuinik ez da jaioko; munduan diren milaka irakurle horiek gabe ipuina ez da sekula bizi ditzakeen bizitza guztiak bizitzera iritsiko.

Istorio baten irakurle orok du istorio horren beste irakurleekin zerbeit komunean. Bereizita, baina nolabait ere elkarrekin, istorioa euren irudimenean berregin dute: pribatua bezain publikoa den ekintza, indibiduala bezain komuna, etxekoa bezain internazionala.

Gizon-emakumeek hobekien egiten dutena da, ziurrenik.

Jarraitu irakurtzen!

Siobhán Parkinson

Egilea, editorea, itzultzailea
eta na nÓg sariaren irabazlea



SIOBHÁN PARKINSON

Idazlea da eta haurrentzat nahiz helduentzat idatzi izan du. 1992an profesionalki idazten hasi zenetik 25 lan baino gehiago argitaratu ditu. Sari ugari jaso ditu eta bere lanak hainbat hizkuntzatarara itzuli dira.

Gaur egun, Little Island Books argitaletxean ari da editore lanetan eta sormen-idazketa irakasten du hainbat unibertsitatetan. Siobhán IBBYren Bookbird aldizkariko koeditorea da, eta lehenago CBI (Children’s Book Ireland) erakundeak argitaratzen duen Inis aldizkarikoa izan zen. Irish Writers’ Centre elkartearen ere kolaboratu du idazle moduan, baita beste zenbait erakundetan ere, batez ere, behar bereziak dituzten haurrekin lan eginez. «Siobhánek Laureante na nög», Irlandako Haur Literatura Saria, eskuratu zuen 2010ean. www.siohbanparkinson.com



NIAMH SHARKEY

Haur literaturako idazle eta ilustratzaile saritua da. Bere liburuk hongoi bat hizkuntzatarara itzuli dira eta hainbat sari jaso dituzte, «Mother Goose Award» etal «Bisto Book of the Year» sariak, besteak beste. Walker Books argitaletxearekin argitaratu ditu *The Ravenous Beast*, *Santasaurus*, eta bere lan berria *On the Road with Mavis and Marge*.

Azken honekin, «Junior Book of the Year at the Irish Book Awards»

Eskolaurreko haurrei zuzendutako Disney Junior-en Henry Hugglemonstee marrazki-bizidunen sortzaile eta ekoizle exekutiboa ere bada Niahm. Hain zuzen, bere *I’m a Happy Hugglewug* liburuan oinarritutako sail animatua da berau. Niahm Dublín bizi da bere familiarekin. 2012an «Laureante na nög» izendapena eskuratu zuen, Irlandako Haur Literatura Saria. www.niamhsharkey.com

